



Foru Dekretu proiektua, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzekoa.

2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Araua onetsi izanak beharrezko egiten du aldaketak sartzea zenbait zerga erregelamendutan.

Egokitzapen orokortuago bat eskatzen duen gaietako bat izatezko bikoteen erregelazioa da, lau erregelamendutan jasota dagoen erregelazioa egokitu beharra baitakar. Zehazki, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren erregelamenduetan egin behar da egokitzapen hori.

1/2024 Foru Arauaren bidez egindako arau aldaketa horren aurretik, izatezko bikotearen kontzeptuak Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, izatezko bikoteak arautzen dituenak, xedatutakoaren arabera eraturakoei soilik egiten zien erreferentzia. Aldaketa horretatik aurrera, kontzeptu horren barruan berariaz sartuta geratu dira hala beste autonomia erkidego batzuetako erregistro publikoetan nola Europar Batasuneko beste estatu batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo hirugarren herrialdeetakoetan eratu eta antzera inskribatutakoak, eta horrekin erantzuna eman zaio Europako Batzordeak zentzu horretan egindako errekerimenduari. Arau mailan egindako aldaketa hori erregelamendu mailara ere ekarri behar da, eta hori foru dekretu honen bidez egiten da.

Garatu beharreko beste gai bat, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan kasu honetan, ikastaroak, hitzaldiak, solasaldiak, mintegiak eta antzekoak emateagatik lortutako etekinei eta ustiapen eskubideak lagata dituzten literatura, arte edo zientzia lanak egitetik eratorritakoei aplikatzen zaien atxikipenaren erregelazioa da, betiere baldin eta, kasu bietan, jarduera ekonomikoen etekinak ez badira. Horrelako kontraprestazioak lan etekintzat hartzea aipatutako 1/2024 Foru Arauaren bidez sartu da zerga araudian. Izan ere, lehen xedapen iragankorrean arau horrek atxikipenen araubide espezifiko bat ezarri du etekin horietarako, baita argi utzi ere araubide hori erregelamendu bidez jaso beharko dela. Bada, foru dekretu honek atxikipenen araubide espezifiko hori jasotzea du xede.



Aurreko aldaketak berekin dakar lan etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa arautzen duen artikulua aldatzea, eta, aldi berean, beste errenta batzuen gaineko atxikipenen zenbatekoari buruzko artikuluan jasotako erregulazioa egokitzea ere eskatzen du.

1/2024 Foru Arauaren onespeneraren ondorioz erregelamendu mailan egokitu behar den beste gai batek Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduari eragiten dio. Zehazki, beharrezkoa da ezartzea ezen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan (banakako pentsioen produktu paneuropar –PEPP– bati buruzkoan) araututako banakako pentsioen produktu paneuroparren sustatzaileak behartuta daudela produktu horiei buruz informatzera aipatutako foru arauak produktu horietara ere zabaldu duelako borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek eta pentsio planek errenta zergan eta ondare zergan duten tratamendua.

Aipatutako 1/2024 Foru Araua alde batera utzita, badira beste gai batzuk erregelamendu mailan egokitzea eskatzen dutenak, eta horien artean jarraian aipatzen direnak daude, tekniko hutsak direnetatik aparte.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan, zergan salbuetsizat jotzen dira gazteen emantzipaziorako Emantzipa Programako laguntzak.

Bestalde, 1979ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko kotizazioengatik Gizarte Segurantzatik jasotako erretiro edo balioezintasun prestazioak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zergapetzeari buruz Auzitegi Gorenak azken hilabeteotan eman dituen epaiak (Auzitegi Gorenaren 914/2021, 255/2023 eta 5/2024 epaiak, besteak beste) egoera jakin batzuk sorrarazi dituzte haiek ukitutako zergapekoei dagokienez, eta egoera horiek ebazteak ez du leku errazik aurkitzen zerga prozedura arrunten esparruan.

Hain zuzen ere, aipagai ditugun kasu horietan ikusten dugu nola zergadun jakin batzuek, preskribatu gabeko zergaldietan indarrean zegoen araudia aplikatuta, ez zutela autolikidaziorik aurkeztu horretara behartuta ez egoteagatik; hala ere, esandako epaien ondorioz aitortzen da zergadun horiek eskubidea dutela erretiro edo baliaezintasun prestazioetan aplikatutako atxikipenak beren alde itzultzeko eta, behar den kasuan, itzuli egin behar zaizkiela.

Epai horietan ebatzitakoa betetze aldera, eta ukitutako zergadunengan betetze horrek kalterik gutxien eragin dezan, beharrezkoa da baldintza horiek beteko dituen berariazko zerga prozedura bat gaitzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 118.2 artikuluan ezarritako parametroei erantzuteko.

Era berean, sozietateen gaineko zergan egokitu egiten da baloreen salerosketetarako emandako kredituengatik balore sozietateek jasotako interesei



atxikipenik eta konturako sarrerarik aplikatzeko obligazioaren salbuespena. Aldaketa horren arrazoia azken urteotan balore merkatuek eta gainerako finantza tresnek beren azpiegituren erregulazioan izan dituzten arau aldaketak dira, hala Europa mailakoak nola Estatukoak.

Erregelamendu horretan ere behar den eran garatzen dira zergaren foru arauan aurreikusten diren komunikazio hauek: alde batetik, sorrera berriko entitate berritzaileen ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzen dutenek egin behar dutena eta, bestetik, arrisku-kapitaleko entitateek –baita entitate finantzatuak ere– aurkeztu behar dutena finantza kontratuetatik datozen errentak lortzen dituztenean eta horien ordainsaria diruzko zati batek eta gauzako beste batek osatzen dutenean (azken hori entitate finantzatuaren akzio edo partaidetzak erosteko eskubide moduan eratu).

Lehenengo kasuan, ezartzen da komunikazioa proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak aurkeztu behar duela Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabilia.

Bigarren kasuan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 77.10 artikulua, kasu hori arautzen duenak, bi komunikazio mota aurreikusten ditu: lehenengoa 10. apartatu horretako d) letran aipatzen da, eta hari dagokionez esaten da komunikazioa aurkeztea arrisku-kapitaleko entitateari dagokiola, eta zer informazio jaso behar den eta zer dokumentazio erantsi behar zaion zehazten da; bigarrenari dagokionez, zeina 10. apartatuko azken paragrafoan aurreikusten baita eta arrisku-kapitaleko entitateari bakarrik eragiten baitio, adierazi beharreko informazioa eta aurkezteko epea zehazten dira.

Zerga-bilketa Erregelamenduari dagokionez, egiten den lehen gauza da ordainketa entitateak eta diru elektronikokoak zerga-bilketan lagundu dezaketen entitateen artean sartzea. Aldaketa horren arrazoia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko azaroaren 25eko 2015/2366 (EB) Zuzentaraua da, barne merkatuko ordainketa zerbitzuei buruzkoa, zeinaren helburu anitzen artean baitaude, besteak beste, sektorean lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzea eta ordainketen merkatuan segurtasuna indartzea merkataritza elektronikoa eta ordainketa metodo berrien agerpena bultzatzeko.

Zerga-bilketaren kudeaketari dagokionez, entitate laguntzaileen bidez egiten diren diru-sarrerak balidatzeko sistema aldatzen da, teknologia berrietara egokitzeko. Gainera, entitate laguntzaileak establezimendu bat baino gehiago dituen kasuetan, desagertzen da harremanetarako izendatzen den establezimendua Gipuzkoan kokatuta egoteko obligazioa.

Delituari lotutako likidazioaren inguruko erantzukizunaren gaiari dagokionez, erregelamenduan ezartzen da prozesu penalean erantzuleak formalki inputatuta



egotea beharkizun izango dela legearen arabera zerga zorraren erantzule deklaratu dadin.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsian:

Bat. 12.1 artikuluko q) letraren bigarren paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Salbuetsita egongo dira, halaber, Gaztelagun programaren etxebizitza alokairurako laguntza publikoak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko apirilaren 26ko Aginduan aurreikusitako (agindu horren bidez Gaztelagun programaren etxebizitza alokairurako laguntzak arautzen dira.»

Bi. Beste letra bat, w) letra, gehitzen zaio 12.1. artikuluari, honela dioena:

«w) 191/2023 Dekretua, abenduaren 26koa, Gazteen emantzipaziorako Emantzipa Programaren laguntzak arautzen dituen.»

Hiru. 99.1. artikuluari c) letra gehitzen zaio, eta honela dio:

«c) Ikastaroak, hitzaldiak, solasaldiak, mintegiak eta antzekoak emateagatik edo ustiapen eskubideak lagata dituzten lan literario, artistiko edo zientifikoengatik lortzen diren lan etekinei (zergaren foru arauaren 18. artikuluko k) eta l) letrak, hurrez hurren) 100eko 15eko atxikipena edo konturako sarrera aplikatuko zaie.

Dena den, zergaren foru arauaren 18.l) artikuluan aipatzen diren lan literario, artistiko edo zientifikoengatik lortutako etekinen gainean 100eko 7ko atxikipena aplikatuko da, baldin eta mota horretako etekin osoen bolumena 15.000 eurotik beherakoa izan bada aurreko ekitaldian eta zergadunak ekitaldi horretan lanagatik eta jarduera ekonomikoengatik lortu dituen etekin osoen baturaren 100eko 75 gairiditzen badu. Atxikipen tasa hori aplikatzeko, zergadunek zirkunstantzia hori betetzen dela jakinarazi behar diote etekinen ordaintzaileari, eta horrek komunikazioa gorde beharko du behar bezala sinatuta.»

Lau. 114. artikuluko 3. apartatua honela geratzen da idatzita:



«3. Jabetza intelektualetik datozen etekinen gainean egin beharreko atxikipena ordaindutako diru-sarrera osoei 100eko 15eko atxikipen tasa aplikatuz aterako da, Erregelamendu honen 99.1 artikuluko c) letran eta 108.1 artikuluan aurreikusten den 100eko 7ko tasa aplikatzekoa den kasuetan izan ezik.

Era berean, portzentaje hori 100eko 7koa izango da hainbat urtetan zehar sortuko diren egile eskubideen ustiapena lagatuz datozen konturako aurrerakinak direnean.»

Bost. 120.1 artikuluko bigarren paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aitortpena eta ordainketa hilean behin egingo dira, aurreko lehen hilabetean egindako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 71. artikulua 3. apartatuko 1. eta 2. zenbakietan jasotzen diren egoeretan badaude.»

Sei. Lehen xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Lehen xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak.

Erregelamendu honen ondorioetarako, izatezko bikoteei egiten zaizkien erreferentziak zergaren foru arauaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.»

Zazpi. Xedapen iragankor bat gehitzen da, hamaikagarrena, eduki honekin:

«Hamaikagarren xedapen iragankorra. Auzitegi Gorenak emandako epaietatik ondorioztatutako itzulketak (Auzitegi Gorenaren 914/2021, 255/2023 eta 5/2024 Epaiak, besteak beste), 1979ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko kotizazioengatik Gizarte Segurantzatik jasotako erretiro edo baliaezintasun prestazioak preskribatu gabeko zergaldietan aitortzera behartuta ez zeuden pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez.

1. Baldin eta Auzitegi Gorenak emandako epaien ondorioz (Auzitegi Gorenaren 914/2021, 255/2023 eta 5/2024 epaiak, besteak beste), gertatzen bada 1979ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako kotizazioengatik Gizarte Segurantzatik jasotako erretiro edo baliaezintasun prestazioak jaso dituztenek eskubidea dutela preskribatu gabeko zergaldietan aplikatutako atxikipenak beren alde itzultzeko, eta zergaldi horietan ez badute autolikidaziorik aurkeztu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudi indardunaren arabera horretara behartuta ez egoteagatik, Zerga Administrazioak itzulketa egin beharko du, hala dagokionean.

Ondorio horietarako, zergapekoek itzulketa eskaera bat aurkeztu beharko diote Zerga Administrazioari.



2. Eskaera jaso ondoren, Administrazioak hura aztertuko du, eta eskura dituen datu eta aurrekariekin alderatuko du. Kontrastea egin ondoren Zerga Administrazioak irizten badu itzulketa bidezkoa dela, likidazioa egingo du zenbat itzuli behar den bertan kuantifikatuz, hori guztia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 97. eta 98. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat.

3. Zerga Administrazioak irizten badu kontrastearen emaitza eta egindako eskaera ez datozela bat, zilegi izango du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean aurreikusitako egiaztapen edo ikuskapen prozeduretako bat abiatzea eskaera egin duen zergapekoaren zerga egoera erregularizatzeko.»

2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduan, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsian:

Bat. 14.1 artikuluko c) letra honela geratzen da idatzita:

«c) Pertsona talde generikoei berdintasun baldintzetan ematen zaienean. Baldintza hori ez dela betetzen ulertuko da sustatzaileak, afiliatuak, konpromisarioak eta zuzendaritza eta administrazio organoetako kideak, baita haien ezkontideak, izatezko bikote lagunak edo laugarren gradurainoko ahaideak, horiek barne, jardueraren hartzaile nagusiak direnean edo alderdiaren zerbitzuak erabiltzeko baldintza bereziak dituztenean.»

Bi. 35 bis artikulua gehitzen da, testu honekin:

«35 bis artikulua. Sorrera berriko entitate berritzaileen ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzen dutenek egin beharreko komunikazioa.

Zergaren foru arauaren 64 bis artikuluko 8. apartatuaren arabera Zerga Administrazioari egin behar zaion komunikazioa proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak aurkeztuko du, finantzaketa kontratua formalizatzen den zergaldia amaitu baino lehen. Aurkezpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, eta, gutxienez, 8. apartatu horretan ezarritako dokumentazioa erantsiko zaio komunikazioari.»»

Hiru. 40 ter artikulua gehitzen da, testu honekin:

«40 ter artikulua. Errenta jakin batzuk lortzen dituzten arrisku-kapitaleko entitateek egin beharreko komunikazioak..

1. Zergaren foru arauaren 77. artikuluko 10. apartatuaren d) letraren arabera Zerga Administrazioari egin behar zaion komunikazioa arrisku-kapitaleko



entitateek aurkeztuko dute finantza kontratuetatik datozen errentak lortzen dituztenean eta horien ordainsaria diruzko zati batek eta gauzazko beste batek osatzen dutenean (azken hori entitate finantzatuaren akzio edo partaidetzak erosteko eskubide moduan eratua).

Komunikazio horri, non gutxienez alderdi kontratugileak identifikatu behar baitira, egindako finantzaketa eragiketa deskribatu, finantzaketa kontratutik eratorritako ordainsaria identifikatu (diruzko zatia eta gauzazkoa zatia bereiziz), eta kontratuaren iraupena zehaztu, dokumentazio hau erantsiko zaio:

- Arrisku-kapitaleko entitatearen eta entitate finantzatuaren artean sinatutako finantzaketa kontratua. Kontratu horretan, besteak beste, jaso beharko da ezen bai arrisku-kapitaleko entitateak eta bai entitate finantzatuak 10. apartatuan ezarritako zerga tratamenduaren aplikazioa aukeratzen dutela eta, hala badagokio, entitate finantzatuak uko egiten diola gastu fiskala aplikatzeari. Hala aukera hori nola aipatutako ukoa zergaren foru arauaren 77. artikuluko 10. apartatuaren d) letran aipatzen dira.

- Bi entitateen –finantzatzailearen eta finantzatuaren– erantzukizunpeko adierazpena, zergaren foru arauaren 77. artikuluko 10. apartatuan aurreikusitako beharkizunak betetzeari dagokionez.

2. Zergaren foru arauaren 77. artikuluko 10. apartatuaren azken paragrafoaren arabera, finantza kontratuetatik datozen errentak lortzeagatik eta horien ordainsaria diruzko zati batek eta gauzazko beste batek osatzeagatik (azken hori entitate finantzatuaren akzio edo partaidetzak erosteko eskubide moduan eratua) arrisku-kapitaleko entitateek Zerga Administrazioari aurkeztu behar dioten urteko komunikazioak zergaldian indarrean izandako kontratuen zerrenda jaso beharko du, eta haietako bakoitzerako datu hauek zehaztu:

- Formalizazioaren urtea.

- Entitate finantzatuaren identifikazioa.

- Zergaldiari dagokion ordainsariaren zenbatekoa, diruzko zatia eta gauzazkoa bereizita.

- Zergaren sortzapen egunean entitatean duen partaidetza portzentajea.

Urteko komunikazioa hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, komunikazio horretan aipatzen den zergaldia amaitzen denetik zenbatzen hasita.»

Lau. 50. artikuluko 5. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«5) Balore sozietateek jasotako interesak, Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legearen 126. artikuluko b) letran aipatutako baloreen salerosketa eragiketekin lotuta emandako kreditu edo



maileguen ondorio direnean, bai eta inbertsio zerbitzuetako enpresek jasotako interesak ere Inbertsio zerbitzuetako enpresen eta inbertsio zerbitzuak ematen dituzten gainerako entitateen araubide juridikoari buruzko azaroaren 8ko 813/2023 Errege Dekretuaren 70. artikuluko 1. apartatuan aipatutako mailegu edo gordailuen eragiketa aktiboei dagokienez.

Era berean, ez da atxikipenik egin beharko kontrapartida zentralako entitateek eta kontrapartida zentralako entitate bateko kide diren entitateek jasotako interesen gainean, baldin eta Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko Legearen 97.2 artikuluan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2012/EB Erregelamenduaren 41. eta 42. artikuluetan (burtsatik kanpoko eratorriak, kontrapartida zentralako entitateak eta eragiketen erregistroak arautzen ditu) eta kontrapartida zentralako entitatearen beraren erregelamenduan eta hura garatzeko zirkularretan aurreikusitakoa aplikatuz eratutako bermeen kontraprestazio gisa jasotzen badituzte.

Orobat, ez da atxikipenik egin beharrik izango Baloreak ordaintzeko eta kitatzeko sistemei buruzko azaroaren 12ko 41/1999 Legearen arabera aitortutako ordainketa sistemen kudeaketa entitateek jasotako interesei dagokienez, ez eta sistema horietan partaide diren entitateek jasotako interesei dagokienez ere, baldin eta lege horren 2. artikuluko d) letran aurreikusitakoa aplikatuz eratutako bermeetatik badatoz, edo dagokion ordainketa sistemaren berezko eragiketak egitearen ondorio hutsa badira.»

Bost. 57.1 artikuluko bigarren paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aitordpena eta ordainketa hilean behin egingo dira, aurreko lehen hilabetean egindako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 71. artikulua 3. apartatuko 1. eta 2. zenbakietan jasotzen diren egoeretan badaude.»

Sei. Zortzigarren xedapen gehigarri bat txertatzen da, honela dioena:

«Zortzigarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak.

Erregelamendu honen ondorioetarako, izatezko bikoteei egiten zaizkien erreferentziak zergaren foru arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.»

3. artikulua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan, maiatzaren 17ko 11/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsian:



Bat. 9.3 artikuluko a) letra honela geratzen da idatzita:

«a) Ezkontideak edo izatezko bikote lagunak eta, egonez gero, familia unitateko gainerako kideek, frogatzea beren egoitza Europar Batasuneko estatu kide batean dagoela.»

Bi. Laugarren xedapen gehigarri bat txertatzen da, honela dioena:

«Laugarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak.

Erregelamendu honen ondorioetarako, izatezko bikoteei egiten zaizkien erreferentziak zergaren foru arauaren hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.»

4. artikulua. Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamenduan, martxoaren 22ko 9/2011 Foru Dekretuaren bidez onetsian:

Bat. 1.1 artikuluko 1. erregela honela geratzen da idatzita:

«1.a) Ezkontide alargunari, izatezko bikote lagunari edo zati alikuotaren jaraunslere edo legatadun bati edo gehiagori ohiko etxebizitzaren edo baserriaren eta bertako lurren eta lur erantsien gehiegizko adjudikazioak egiten bazaizkie, adjudikazio horiek ez dira ondare eskualdaketatzat hartuko haien balioa, jaraunsi osoaren aldean, handiagoa bada adjudikaziodunaren jarauntsiko kuota baino.»

Bi. 13. artikuluko 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Horren ondorengo usufruktuetan, jabetza soilaren balioa kalkulatzeko, portzentajerik handieneko usufruktua hartuko da kontuan, eta, usufruktu hori iraungitzean, jabetza soilak duen balio igoerari dagokiona ordainduko du jabe soilak, eta horrela egingo da, hurrenez hurren, gainerako usufruktuak iraungitzean. Arau bera aplikatuko da usufruktua bi ezkontideen edo izatezko bikoteko bi kideen alde eratuta dagoenean aldi berean, baina jabariaren kontsolidazioak dakarren likidazioa azkena hiltzen denean bakarrik egingo da.»

Hiru. Egungo xedapen gehigarri bakarra lehen xedapen gehigarri izendatzen da, eta bigarren xedapen gehigarri bat sartzen da, honako testua dakarrena:

«Bigarren xedapen gehigarria. Izatezko bikoteak.



Erregelamendu honen ondorioetarako, izatezko bikoteei egiten zaizkien erreferentziak zergaren foru arauaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.»

5. artikulua. Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduan, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsian:

Bat. 6. artikuluari 4. apartatua gehitzen zaio, honela dioena:

«4. Halaber, zerga-bilketako entitate laguntzailezat hartu ahal izango dira, kreditu entitateentzat aurreikusitako modu eta baldintza berberetan, honako hauek:

- a) Diru elektronikoko entitateak.
- b) Ordainketa entitateak.
- c) Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen duen beste edozein.»

Bi. 10.3 artikuluko lehen paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Establezimendu bat baino gehiago dituen entitateak horietako bat izendatu beharko du Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko harremanetarako.»

Hiru. 12. artikuluko 6. apartatua honela geratzen da idatzita:

«6. Diru-sarrera bat onartu behar duen entitate laguntzaileak honako hau egiaztatu behar du, kontuan ordaindu aurretik:

- a) Diru-sarreraren zenbatekoa guztiz bat datorrela autolikidazioaren edo ordainketa agiriaren “Ordaintzekoa, guztira” atalean agertu behar duenarekin.
- b) Agiri horietan zergadunaren izena, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia jasotzen direla, baita kontzeptua eta ordainketa horri dagokion ekitaldia edo epealdia ere.

Aurreko egiaztapena balekoa bada, entitate laguntzaileak hurrengo kontzeptuak balidatu beharko ditu, dela mekanikoki, kontabilitate makina bidez, dela eskuz zigilatuta, autolikidazioa osatzen duen dokumentuan edo ordainketa agirian: diru-sarreraren data, guztira zenbat ordaindu den, kontzeptua eta entitatearen eta bulego hartzailearen gakoa. Horrela, diru-sarreraren kontzeptua geratuko da ziurtatuta, baita diru-sarrera hori Foru Diruzaintzaren kontuetan egin dela ere.

Administrazio bakoitzak ezarri ahal izango du diru-sarrerak balidatzeko garaian entitate laguntzaileek aurreko paragrafoan jasotakoez bestelako prozedurak



erabili ahal izango dituztela, bereziki, diru-sarrera modu ez-presentzialean egiten den kasuetan.

Nolanahi ere, ezartzen diren balidazio prozedurek bermatu beharko dute diru-sarrerari lotutako informazioa behar bezala identifikatzen dela.»

Lau. 130 bis artikuluko 1. eta 3. apartatuak honela geratzen dira idatzita:

«1. Egiaztapen eta ikerketa prozedura batean beharrezkoa bada delituari lotutako likidazio bat egitea eta prozedura horretan jarduten duen organoa jakitun bada badaudela egitateak edo zirkunstantziak zerga erantzukizunen bat eragin dezaketenak, egitate horien berri eman beharko dio zergabilketa organoari, erantzukizuna deklaratzeko prozedura abiatu dezan.»

«3. Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik aurkeztutako salaketa edo kereila onartutzat jotzen den unetik aurrera hartu beharko da erantzukizuna deklaratzeko erabakia. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek, 256. artikuluko 1. apartatuan aipatzen dituen kasuetan, jasota utzi beharko prozesu penalean erantzulea ikertu gisa ageri dela formalki.

Erantzukizuna deklaratzeko erabakiaren jakinarazpenak errekerimendua jaso behar du likidatutako zerga zorra martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek, 61.2 artikuluan ezarritako epean ordaindu dadin.»

6. artikulua. Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzea.

Abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduen 66. artikuluko c) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«c) Pentsio funtsak kudeatzen dituzten entitateak, zeinen obligazioa izango baita informazioan banan-banan jasotzea zein diren funts horiei atxikitako planen partaideak eta zenbateko ekarpenak egin dizkieten plan horiei, ekarpenak partaideek zuzenean eginak izan, baimendutako pertsonak eginak izan edo aipatutako planen sustatzaileek eginak izan.

Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan (banakako pentsioen produktu paneuropar – PEPP– bati buruzkoan) araututako banakako pentsioen produktu paneuroparren sustatzaileek banan-banan zerrendatu beharko dute zer pertsonak utzi dituzten plan horietan beren aurrezkiak eta zenbateko ekarpenak egin dituzten PEPP kontu bakoitzean irekitako azpikontuetan.»

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.



Indarrik gabe geratzen dira foru dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko ahalmena.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.